

Hamaseigarrena. Izena: Bideozaintza.

a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.e) artikulua: Eginkizun bat interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen jardunean betetzeko behar den tratamendua.

b) Tratamenduaren xedeak: Pertsonen, ondasunen eta instalazioen segurtasuna bermatzea.

c) Ukitutako norbanakoak eta taldeak:

- Foru parlamentariak.
- Parlamentuko langileak.
- Parlamentuarekin zerikusirik izan gabe Parlamentuaren egoitzara sartzen diren pertsonak.
- Parlamentuaren egoitzaren ingurumarietatik pasatzen diren pertsonak.

d) Datu-kategoriak: Nafarroako Foru Parlamentuaren barnealdean eta kanpoaldean hartutako irudiak.

e) Norentzakoak: Izaera pertsonaleko datuak igorri ahalko zaizkie segurtasun indar eta kidegoei eta, kasua bada, epaile eta auzitegiei eta Fiskaltzako kideei, bai eta beste organo batzuei ere, legezko betebeharra dagoenean.

f) Nazioarteko transferentzia: halakorik ez dago aurreikusita.

g) Ezabatze-epea: Tratutzen diren datuak hilabetez gordeko dira, salbu eta grabazioek delitu edo gertakariren bat jasotzen dutenean, ezen orduan gorde egingen dira, baina tratamendutik eratorritako balizko erantzukizunen ondorioetarako baizik ez, eta erantzukizun horien preskripzio-epea igaro bitartean.

h) Segurtasun-neurri tekniko eta antolaketakoak: Ezarritako segurtasun-neurriak dira Administrazio elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuko II. eranskinari jarraikiz aplikaturikoei dagozkienak.

i) Arduradun entitatea: Nafarroako Parlamentua. Norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna eta tratamendu-murriztapena eskatzeko nahiz tratamendu-errefusa adierazteko eskubidea, bidezkoa denean, egikaritu nahi izanez gero Nafarroako Parlamentuaren aurrean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: registro@parlamentodenavarra.es.

j) Tratamenduaren arduraduna: Nafarroako Foruzaingoa.